

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI FESTAK

Latsunbeberri
eta Marielutsek
hartuko dute
festen lekukoa,
gaurtik

Arratsaldeko
19:00etan botako
dute auzotarrek
festei hasiera
emateko etxeferoa.

PORTUK hasi ohi du auzoko festen bidea, eta hemendik aurrera, astebururo izango dira ekintzak. Gaur hartuko du lekukoa Latsunbeberri-Marieluts auzoak, bertako auzo egunarekin. Arratsaldeko 19:00etan botako dute aurreneko etxeferoa, eta igande eguerdira arte jarraituko du festak, ia etenik gabe.

Musikarekin hasi eta bukatu

Suziria botata, gaztetxo nahiz helduentzako jardue- ra izango dute. Hain zuzen, ordu eta erdiz, Musta perkusio tailerrean hartu ahal izango dute parte auzotarrak. Gorputza erritmoa hartuta, Rey Dominikanok zumba dantzatzaren jarriko du auzoa, eta bitartean, sardinak jateko aukera ere izango da. DJaren musikak esango dio agur egunari, gauean. ■

■ HERNANI IRAILEKO AGENDA

Udako festen azken traka, Benitoren erritmora

Latsunbeberri-Marielutseko festekin hasiko da agenda gaur, eta Lizeaga auzoko jaiekin emango zaio bukaera irailari. Zikuñagako festak, Euskal jaiak... eta hamaika ekintza gehiago izango dira tartean.

UDARARI agur esateko garaia iritsi zaio askori, eta egunero-kotasunera buelta leunagoa izateko moduko agenda pres-tatu dute. Latsunbeberri-Marieluts auzoetako festekin hasiko da giroa gaurtik, eta Lizeagako auzoko jaiek emango diote bukaera, azkeneko asteburuan.

Festa bana, astebururo

Asteburu honetan hasita, beraz, astebururo izango da festa, herrian. Zikuñagakoak izango dira hurrengo asteburuan; Euskal Jaiak tartekoan; eta Karabelgoek eta Lizeagakoek jarriko diote ginda irailari, azkeneko bi asteburu-etan, hurrenez hurren.

Benito Lertxundirekin, hilaren hasiera

Beste ekintzarik ere izango da, tartean. Horietako bat izango

Benito Lertxundiren kontzerturako sarrera gutxi batzuk geratzen dira Biterin.

da Benito Lertxundiren kontzertua; hurrengo ostiralean, gaur zortzi, eskainiko du orio-tarrak kiroldegian, gaueko 22:00etan hasita.

Sarrera gutxi batzuk geratzen dira oraindik; interneten dagoeneko bukatu dira, baina azkenekoak Biterin eskuratu daitezke, 15 euroan.

Ikasturte hasiera, ere bai

Horrez gain, ikasturte hasierarekin lotura duten hainbat zita ere izango dira, irailan: Biteriko ikastaroetan eta auzoetako tailerretan izenematea, Jabetze Eskolen hasierako emanaldia... ■



Haur eta helduek ondo pasatzeko jaiak dira Euskal Jaiak.

IRAILEKO AGENDA

Ab. 30-Ira. 1, Latsunbeberri eta Marielutsen Auzo Eguna.

2-6, Biteri Kultur Etxeko ikastaroetan alde aurreko izena emateko epearen hasiera. Biteri kultur etxea. Orduetgia: 09:00-13:00/16:00-20:00.

2-13, Auzoetan antolatzen diren haurrentzako tailerretan izen emateko epea. Izena auzo elkarteetan eman behar da.

5-8, Zikuñaga Auzoko Jaiak.

7, Hitzaldia: *Bizi Baratzea*. Antolatzailea: Argia. Lekua: Orona Ideo eraikina.

11, *Hernani 2018/2019 urtekariaren aurkezpena*. Lekua: Biteri Kultur Etxean. Ordua: 19:30.

13, *Leokako emanaldia: elkartu, gozatu, jabetu; Jabetze Eskola abian*. Kantariak: Bihotx Norabide guztiak.

Antolatzailea: Berdintasun Kontseilua. Euria eginez gero, hurrengo ostiralera atzeratuko da (irailak 20). Lekua: Leokako Labaderea. Ordua: 22:00.

14, Bigarren eskuko azoka.

14, *Hernaniko Musika Banda*. Lekua: Udaletxeko arkupeetan. Ordua: 19:45.

14-15, *Euskal Jaiak*. Abeltzaintza azoka, Sagarra eta sagardoaren eguna, Gazteen trikitixa txapelketa, dantzaldia...

14, *Hernaniko Musika Banda*. Lekua: Udaletxeko arkupeetan. Ordua: 19:45.

17, *Ipuin kontaketa*. Kontalaria: Apaxi. Edukiera mugatua, gonbidapenak Liburutegian. Lekua: Biteri kultur etxea. Bi saio: 17:30etan (3-4 urte); eta 18:00etan (5-7 urte).

17, *Mintegia: Emakumeen Euskal Literatura Ikuspegi Feministatik*.

Gidaria: Kattalin Miner. Izen-ema-tea Udal Liburutegian. Ordua: 19:00etan. 16 urtetik gorakoentzat.

20, *Hernaniko Merkatarraren Festa*. Antolatzailea: Berriak Elkarte.

20-21, *Karabel auzoko jaiak*.

20-22, *Mugikortasun Astea*.

28, *Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia*. Antolatzailea: 'Hernani' Musika Eskola Publikoa. Lekua: Atsegindegi plaza. Ordua: 18:00.

29, *Argazki rally digitala*. Lekua: Gudarien plazan. Ordua: 12:00etan.

29, *Kultura anitzeko dastatze gastronomikoa*. Antolatzailea: Amher elkarte. Lekua: Plaza Berri. Ordua: 12:00.

30, *Ipuin kontaketa*. Kontalaria: Ixabel Agirresarobe. Lekua: Biteri Kultur Etxea. Bi saio: 17:30etan (3-4 urte); eta 18:00etan (5-7 urte).

27-29, *Lizeaga Auzoko Jaiak*.

KONTZERTUA

6, Benito Lertxundi. Lekua: Kiroldegia. Ordua: 22:00.

ERAKUSKETAK

11-bukaera, *Hernani ikusiyak*. Lekua: Biteri kultur etxea. Orduetgia: 18:00-20:00.

18-28, *Filatelia erakusketa. José Olaizola Gabaraini omenaldia*. Orduetgia: 10:00-13:00 / 16:00-20:00.

20, *Zigilu-marka*. Lekua: Biteri kultur etxea.

21, *Omenaldia Jose Olaizolari*. Lekua: Biteri kultur etxea. Antolatzailea: Asociación Filatélica y Numismática Guipuzcoana. Lekua: Biteri Kultur Etxea. Ordua: 14:00.

GAURKO EGITARAUA

19:00, Auzoko festen hasierako suziria.

19:00-20:30, Musta perkusio tailerra.

20:30-21:30, Zumba tailerra Rey Dominikanoren eskutik.

20:30, Sardina-jate popularra, balio anitzeko pistan.

21:30-02:00, Musika balio anitzeko pista oholztan TDJSek (Txingudi Deejays) eskainita.

Oharra:

Egun hauetan zehar edariak, ogitartekoak eta pintxoak egongo dira txoznan, antolakuntzari ekonomikoki laguntzeko. Bertaratutakoei Jai Batzordearekin kolaboratzea eskatzen diegu, ekitaldi guztietako tresna guztien lekualdaketa, batez ere. Jaiak nahi baditugu, denon laguntza ezinbestekoa da.



YABEN ENGLISH SCHOOL

HERNANI
ikastegia

Learning Partner

2019 / 20 IKASTURTEA

MATRIKULA IREKITA
Irailaren 2tik 10era
Orduetgia: 10.00 - 13.00 eta 17.00 - 20.00

YABEN: Andreakale 60 943.331763 YABEN K&S: Perkaltegi 13 943.331763

Cambridge English Language Assessment

Exam Preparation Centre

FIRST	ADVANCED
Jon Garmendia	Maialen Tolosa
Yanis Aguado	Andor Leizaola
Xabier Garcia	Siria Barria
Eneko Garmendia	Hegoi Urretabizkaia
Hinar Goya	Aitor Pagola
Enara López	Thais Zambrano
Andoni Zubizarreta	Silvia Aguirre
Oier Elzomendi	Enara Larburu
Andrea Errasti	Kepa Salgado
	Mikel Urzua

Escolak irailaren 10ean hasiko dira

www.academiyaben.com

GAUR Aldaketa gutxi izango dira gaurkoan. Goizean zaparradaren bat egin dezake. Hala ere eguerdian argitzera egingo du eguraldiak ostarreak sortuz. Arratsaldean, zaparrada trumoiatsuren bat bota dezake. **Min.19° / Max.27°**

BIHAR Bihar, ipar mendebaldeko haizeak laino ugari ekarriko ditu itsas aldetik, eta egunaren amaieran euria egingo du. Hala ere, eguerdian arte giro eguzkitsuz gozatzeko aukera egongo da. Eta arratsaldean, bero-lainoak garatuko dira. **Min.19° / Max.25°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Erebesto** Elcano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI KIROLA ETA KULTURA

Piraguismoa, eskalada eta sormen tailerrak aukeran

Nerabeentzako kirol eta kultur eskaintza hasiko da irailean. Oraindik zenbait ikastarotan izena eman daiteke; eskaladan eta sormenean.

UDALAK nerabeentzako kirol eta kultur eskaintzak antolatu ditu, hala nola, piraguismoa, eskalada eta sormen tailerra. Eskaladan eta sormen tailerren oraindik izena emateko aukera dago.

Kirol saioak

Piraguismo eta eskaladarako ikastaroak nerabeentzako udazkeneko jardura fisiko eta kirol eskaintzaren barruan daude, eta biak Kaxkardi Kirol Elkarteak bideratuko ditu.

Piragua ikastaroa datorren astelehenean hasiko da eta ostiral arte iraungo du; bi orduko saioak izango dira, Fagollagatik hasita.

Oraindik irekita dago eskaladarako eta sormen tailerretarako izen ematea.

Eskalada aldiz, irailaren 9an hasiko da, eta ondorengo egunetan ere eskalatzeko aukera egongo da; 11, 13, 16 eta 18an. Entrenamenduak 16:30etatik 18:30etara izango dira, Santa Barbaran.

Antolatzaileek adierazi dute, ikastaro bakoitzak 10 euroko fidantza izango duela, eta nerabeak saio guztietara agertzen badira, fidantza hau bueltatu egingo dela.

Sormen saioa

Sormen saioak bost eguneko iraupena izango du, irailaren 10, 12, 17, 19 eta 24an izango dira tailerrak. Arramazka artista arituko da gazteen sormena pizten. Sormen tailerren apuntatzeko azken eguna datorren ostirala izango da, irailaren 6a, hain zuzen. Antolatzaileek argi utzi nahi izan dute, ikastaro hau doakoa dela.

Dagoeneko martxan dauden hiru ikastaro hauek, Hernani Erabaki parte hartze prozesuan, nerabeentzako kirol eta kultura eskaintza areagotzeko proposamenaren baitan kokatuta dauela nabarmendu du Udalak. ||

HERNANI JUBILATU ETA PENTSIONISTAK

Kalera buelta astelehenean, jubilatutako eta pentsionistak

Udaren ondoren, berriro ere Kaxkoan barrena egingo dute kontzentrazioa etzidamutik aurrera. Eguerdik 12:00etan jarri dute zita, Plazan.

ALDARRIKAPENAK herriko kaletara aterako dituzte, beste behin, Hernaniko jubilatutako eta pentsionistak. Eguerdik 12:00etan jarri dute zita astelehenean, Plazan.

Orduetik aurrera, astelehenero egiteko asmoa azaldu dute, udara hasi aurretik egingo zuten moduan.

2018 urtetik aurrera, zitari eusten

Estatu osoko deialdiei jarraituz, 2018an hasi ziren Hernaniko jubilatutako eta pentsionistak asteleheneroko hitzorduekin. Eta orduetik, astero eutsi diete, kontzentrazioei.

Taldearen aldarrikapenak lau haizetara zabaltzea izan dute helburu. Hain zuzen, pentsio duinen alde egitea eta kolektiboaren gainontzeko aldarrikapenen alde egitea. ||



2018ko martxoan hasi zituzten mobilizazioak Hernanin.

HERNANI AMHER

Doako azoka, Amherren eskutik

Gaur goizeko 10:00etan irekiko da doako azoka eta gaur ere ekarpenak egin daitezke.

AMHER elkarteak, aspalditik hainbat eta hainbat material jaso izan ditu, hala nola, arropa, liburuak... Hauek urte osoan eskaintzeaz gain, gaur doako azokan jarriko dituzte.

Goizeko 10:00etan izango da doako azoka eta Amher elkarteak nabarmendu du, ongi etorriak izango direla bertaraten direnak. Eta egunean bertan ekarpenak egin daitezke ere argi utzi dute.

Amherrek adierazi du, «ongi etorriak izango dira bertaraten diren guztiak».

Hori dela eta, deia zabaldu nahi dute; gaur goizean Amherren egoitzara gerturatu eta azoka prestatzen laguntzeko. ||

HERNANI ARRAUNA

'Maialen' ez da Kontxara iritsi

Lan polita eta ahalegin izugarria egin zuten atzo Kontxan, 'Maialen' traineruko arraunlariek, baina ez zuten Kontxako Bandera jokatzeko sailkatzea lortu. Aurreneko sailkatua Orio izan zen, 11:12,92ko denborarekin, eta Hernani 17garren izan zen, minutu bat eta 12 segundora. Sailkatutakoak izan ziren, Orioz gain, Arraun Lagunak, Hibaika, Zumaia, Hondarribia, San Juan eta Riveira. ||

HERNANI KONTZENTRAZIOA

Kontzentrazioa, presoak etxera ekartzeko

Hileroko azken ostiralero moduan, gaur ere, arratsaldeko 20:00etan, Kontzentrazioa egingo da Gudarien Plazan. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

